



*Bizkaiko Indarkeria
Matxistaren Behatokia
Observatorio de la **Violencia**
Machista en Bizkaia*

TXOSTENA

**EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA
MATXISTAKO EGOERETAN**

EMANDAKO LAGUNTZAREN ZIFRAK

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN

POLIZIAREN ARLOA

2022



2. KAPITULUA

POLIZIA ESPARRUA

Alderdi terminologikoak

Kapitulu honetan, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak biktimizazioen estatistikan emandako datuak aurkezten dira. Bertan kontuan hartzen dira *“pertsonak zigor-bidegabekeria baten biktima izan diren aldi guztiak, eta Ertzaintzak halakotzat erregistratu dituenak, dela herritarren salaketa baten bidez, dela poliziak bere ekimenez irekitako eginbideen bidez”*.

Dokumentu osoan, **“biktimizazio”** terminoa erabiltzen da, horren edukia “salaketa” terminoarena baino zabalagoa delako; izan ere, Ertzaintzak zuzenean ezagutzen dituen gertakariak ere jasotzen dira, salaketarik egin ez bada ere. Beraz, gizarte-arloko programei buruzko aurreko kapituluan ez bezala –bertan “emakume-kopuruari” buruzko informazioa eskaintzen da–, kapitulu honetan analisi-unitate nagusia indarkeriazko “kasuak edo gertaerak” dira, hainbat kasutan, biktimizazioetan inplikaturako pertsonen kopuruari buruzko informazioa jasotzen bada ere.

Sail honek erabiltzen dituen kontzeptu eta terminologiaren arabera, berak aurkezten baititu jarraian aurkezten diren datuak, kapitulu honetan **“emakumeen aurkako indarkeria”** aipatzen denean, hiru mota bereizten dira, indarkeriaren eragilearekiko harremanaren arabera:

- 1. Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria.**
- 2. Familia barruko genero-indarkeria:** gizonen familia-eremuan emakumeen aurka eragindako indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa izan ezik)¹.
- 3. Sexu-izaerako indarkeria,** gizonen emakumeen aurka aurreko bi eremu horietatik kanpo eragindakoa.

¹ 2010ean, orduan Barne Saila zenak hobekuntzak egin zituen datuen ustiapenean, eta familia barruko indarkeriaren konputua egokitu zuen, pertsona erasotzailearen sexuaren arabera, konputu horretan sartzeko erasotzailea gizonetzkoa den kasuak bakarrik (lehenago kasu guztiak sartzen ziren). Era berean, irizpide horri jarraiki, 2009ko datuak zuzendu zituen; hori dela eta, txosten honetan urte horren inguruko datuak aipatzen direnean, desberdintasunak antzeman daitezke, 2009ari dagokion edizioan agertzen diren datuen aldean, izan ere, han jasotzen ziren zenbakiak Sailak lehenagoko ustiapenaren arabera emandakoak ziren.



2.1. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA BIZKAIAN

2.1.1. Lurralde osoko datuak

2022an, Ertzaintzak emakumeen aurkako indarkeriaren (EAI) ondoriozko **3.194 biktimizazio** erregistratu zituen Bizkaian, hain zuzen ere, EAEn guztira erregistratutako biktimizazioen % 52.

Bizkaiko datu horrek ematen du **53,7ko biktimizazio-tasa, hamar mila emakumeko.**

Gertakari horien biktima 2.524 emakume izan dira, biktimizazioen kopurua baino txikiagoa, izan ere, biktima batek indarkeria-egintza bat baino gehiago jasan ahal izan duelako. Emakume biktimen tasa hamar mila emakumeko 42,5 biktimakoa da.

Urtean bi hildako izan ziren: bikote-indarkeriagatik (Bilbo) eta familia barruko indarkeriagatik (Barakaldo).


Aurreko urtearekin alderatuta, biktimizazioen bolumena % 9,8 handitu zen (2.908 gertakari 2021ean). Bilakaerari erreparatuta, aztertutako aldi osoan, 2022ko datua da **erregistrorik altuena.**

Ondoko grafikoak erakusten duenez, denboran zehar adierazle honek erakusten duen ezaugarria **goranzko joera da, eten gutxirekin.** Hazkundera progresiboa da lehen urteetan (2003-2008) eta, 2009an, beherakada txiki bat sumatzen da, lehen azaldu denez, urte hartan Sailak aldatu zituelako neurketaren parametroak. 2010ean, benetan gutxitu zen biktimizazioen kopurua, hiru indarkeria-motetan gutxitu ere: (bikotekide/bikotekide ohia; familia barruko genero-indarkeria; eta sexu-indarkeria). Orduz geroztik, jaitsiera-uneak oso bakanak izan dira, eta ez dira antzematen eguneroko erregistroetan; azken hamarkadan, egunean zortzi kasu inguru izan dira, 2003ko bost kasuen aldean. 2022ko zifrak adierazlea **eguneko ia bederatzi biktimizaziotara hurbildu du.**



Epealdia mugatzen duten bi urteetako (2003 eta 2022) bolumenak alderatuta, **1.524 biktimizazio kasu gehiago** gertatu dira azken urtean.

Aztertutako 20 urteetan, Ertzaintzak emakumeen aurkako indarkeriari dagozkion **52.746** gertakari erregistratu ditu Bizkaian.



2.1. taula. Emakumeen aurkako indarkeriaren ondoriozko emakume-biktimizazioak. BLH. 2004-2022

	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009 ²	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Kop.	1.670	1.880	2.210	2.368	2.568	2.723	2.652	2.366	2.747	2.758	2.801	2.894	2.776	2.581	2.768	2.932	2.989	2.961	2.908	3.194
Ald. %	--	12,6	17,6	7,1	8,4	6,0	-2,6	-10,8	16,1	0,4	1,6	3,3	-4,1	-7,0	7,2	5,9	1,9	-0,9	-1,8	9,8
Ald.% 03	--	12,6	32,3	41,8	53,8	63,1	58,8	41,7	64,5	65,1	67,7	73,3	66,2	54,6	65,7	75,6	79,0	77,3	74,1	91,3


Kop.: Biktimizazio-kopurua/Ald. Urtetik urtera: Urtetik urterako aldaketa / Ald. 03: Aldaketa 2003tik
Iturria: Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta egin da. Eusko Jaurlaritzak.

² 2010ean, neurketa-parametroak aldatu ziren, eta aurreko urteko (2009) datuak ere aldatu ziren. Aldaketak "familia barruko indarkeria" kategorian du eragina; haren barnean, ez dira kontuan hartzen pertsona erasotzailea emakumea den kasuak.

Indarkeria-motak

Segurtasun Sailaren sailkapenari jarraiki, Emakumeen Aurkako Indarkeria (EAI) osatzen duten hiru indarkeria motetatik, bikotekide/bikotekide ohiaren indarkeria % 73,6 da; familia barruko indarkeria % 17,8 da; eta sexu-askatasunaren aurkako delituak urte honetan % 8,6 dira, Ertzaintzaren erregistroetan.


2.2 grafikoa. Emakumeen biktimizazioak, emakumeen aurkako indarkeria dela eta, indarkeria-motaren arabera. BLH. 2022



Iturria: Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta egin da. Eusko Jaurlaritza.

Aurreko urtearen aldean, 2022an gora egin zuten sexu-askatasunaren aurkako delituekin lotutako biktimizazioek (% 22,3) eta bikotekide/bikotekide ohiaren indarkeria kasuek (% 11,3). Familia barruko indarkeriarekin zerikusia dutenak antzeko mailan daude (-% 0,3).

2.3 grafikoa. Emakumeen biktimizazioak, emakumeen aurkako indarkeria dela eta, indarkeria-motaren arabera. BLH. 2021-2022




Iturria: Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta egin da. Eusko Jaurlaritza.

Emakume biktimen kopuruari dagokionez, izandako aldaketak hauek dira: % 21eko igoera sexu-indarkeria kasuetan (aurreko urtean baino 47 emakume gehiago); % 12koa bikotekide/bikotekide ohiaren indarkeria kasuetan (189 emakume gehiago); eta % 3,8ko jaitsiera familia barruko indarkerian (19 emakume gutxiago).

2.1.2. Udalerrietako datuak

Ohiko ereduari jarraiki, EAlren ondoriozko biktimizazioen erregistroa **Lurralde osoan** islatzen da. 2022an, biktimizazioak erregistratu ziren **Bizkaiko 112 udalerrietatik 91tan**, eta udalerri horietan bizi dira, hain zuzen ere, Lurraldean bizi diren emakumeen % 99.

Udalerri horien erdiak baino gehiago (% 57,1) biktimizazioen erregistro txikieneko tartean daude: urtean 10 kasu baino gutxiago izan dira. Udalerri horietan bizi dira Bizkaiko emakumeen % 7,1 eta han izan dira biktimizazioen % 5,3. Gehienak 1.000 biztanle baino gutxiagoko herriguneak dira.




Iturria: Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta egin da. Eusko Jaurlaritza.

Kontrako muturrean, **16 udalerrik** (aurreko urtean baino bi gehiago) erakusten dute **gertakari-dentsitate handiena**. 40tik gora gertakariarekin, Bizkaian erregistratzen diren biktimizazio gehienak biltzen dituzte: 2022an, **hamar biktimizaziotik ia zortzi** (% 79,1) hamar udalerri handien taldean (25.000 biztanletik gorakoak) gertatu ziren; horiekin batera, *Erandio, Zornotza, Bermeo, Ermua, *Gernika-Lumo eta Trapagaran.


*Udalerri horretan Ertzain-etxe bat dago.



2.1. irudia. Emakumeen aurkako indarkeriaren ondoriozko emakume-biktimizazioak.
BLH. 2022



2.2. irudia. Emakumeen biktimizazio-tasa, emakumeen aurkako indarkeriaren ondorioz
(tasa 10.000 emakumeko). BLH. 2022



Iturria eta prestatze-lana: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza.



25.000 biztanletik gorako udalerriak

Hamar biktimizaziotik ia zazpi (% 68,5) Bizkaiko hamar udalerri handietan pilatzen dira (25.000 biztanletik gora); portzentaje hori ia bat dator Lurralde osoko biztanle-kopurutik hiri horietan bizi diren herritarren ehunekoarekin (67,7%).

Edonola ere, aurreko urteetan bezala, udalerri horietako bakoitzak errealitate zehatz bana dute, eta beraz, horrek adierazten du biztanle kopurua ez dela biktimizazioen banaketan eragina duen faktore bakarra. Urtez urte ikusten da ez direla beti proportzionalak udalerrietan erregistratutako biztanleen ehunekoak eta biktimizazioen ehunekoak.

Era berean biktimizazioen kopurua eta emakumeek biztanlerian duten proportzioa erlazionatzen dituen adierazleak (tasa, 10.000 emakumeko) alde handiak erakusten ditu, eta ez da arraroa udalerri batzuetako indizea beste batzuetako indizea halako bi edo are altuagoa izatea.

Gogoan izan behar da datu horiek zerbitzuen jardueratik datozela eta Ertzaintzak ezagututako gertakariei dagozkiela, hau da, *arreta-sisteman bide horretatik agertzen diren kasuei dagozkiela* eta, beraz, ezin ondorioztatu dela haietatik, herri batean edo bestean, emakumeen aurkako indarkeria kasu gehiago edo gutxiago daudenik.

2.2 taula. 25.000 biztanletik gorako udalerrietan
EAlren ondorioz izandako biktimizazioen adierazle nagusiak. BLH. 2022

Udalerria	Emakumeen kopurua	BLHko guztizkoaren %	Biktimizazio en kop.	BLHko guztizkoaren %	Biktimizazio-tasa
Barakaldo	51.949	8,7	334	10,5	64,3
Basauri	20.819	3,5	88	2,8	42,3
Bilbao	181.299	30,5	909	28,5	50,1
Durango	15.188	2,6	80	2,5	52,7
Galdakao	14.901	2,5	53	1,7	35,6
Getxo	40.589	6,8	186	5,8	45,8
Leioa	16.433	2,8	86	2,7	52,3
Portugalete	23.387	3,9	138	4,3	59,0
Santurtzi	23.806	4,0	174	5,4	73,1
Sestao	14.214	2,4	141	4,4	99,2
Guztira <25.000 bizt.	402.585	67,7	2.189	68,5	54,4
Guztira, BLH	594.303	-	3.194	-	53,7

Oharra: Biktimizazio-tasa 10.000 emakumeri dagokion tasa da.

Iturria: EINren eta Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta egin da. Eusko jaurlaritza



Beste udalerri batzuk

Bizkaiko beste udalerri batzuek ere, 25.000 biztanletik beherako populazio-bolumenak dituztelarik ere, batez besteko tasa gainditzen dute³ eta biktimizazio-bolumen esanguratsua dute. Ohikoa denez, talde horretan Erandio dago (108 biktimizazio; 85,7ko tasa). Horiekin batera, urte honetan agertzen dira Trapagaran (49 biktimizazio, 79,9ko tasa) eta Zornotza (56 biktimizazio eta 56,3ko tasa) ere.

³ Tasak emakumezko biztanleak eta gertatutako biktimizazio-kopurua lotzen ditu, 10.000 emakumetara zabaldua; beraz, nukleo txikietako adierazlearen balio altuak batez ere kalkuluaren beraren bidez azaltzen dira, eta ez hainbeste erregistratutako indarkeria-kasuen kopuruaren intentsitatearen bidez. Horregatik, ondorio hori minimizatzeke, zerrendan 40 gertakari edo gehiagoko biktimizazio-kopurua duten udalerrak soilik hartzen dira aintzat.

2.2. BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDAKO INDARKERIA

2.2.1. Lurralde osoko datuak

A. Biktimizazioak eta biktimak


2022an zehar, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren **2.352 biktimizazio** erregistratu ziren Bizkaian, eta horien biktima **1.770 emakumezko izan ziren**.

Aurreko urtearen aldean, zifrak **handitu egin dira** % 11,3 eta % 12, hurrenez hurren.

Urtean, bikotekidearen indarkeriaren ondoriozko hildako bat erregistratu zen (Bilbo).

Bikotekidearen/bikotekide ohiaren indarkeria emakumeen aurkako indarkerian erregistratutako gertakari guztien gehiengoa izanik, indarkeria-mota horren bilakaeraren grafikoak eta EAlren guztizkoari buruz aurreko atalean jasotako grafikoak oso antzeko profila dute.

2003tik, bikotekide/bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren ondoriozko emakumeen biktimizazioen kopurua **modu progresiboan handitu da** urtetik urtera, batik bat, Genero-indarkeriaren aurkako babes osoa emateko neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoa onetsi ondoren. Legea onetsi osteko urteetan, goranzko joera gutxitan eteten da eta, **oro har, urtez urte datuek maximo berriak adierazten dituzte**. 2022ren kasua da, epealdi osoko **zifrarik altuena** erregistratzen baitu.



Iturria: Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta egin da. Eusko Jaurlaritza.

Azken bi hamarkadetan, **ia bikoiztu egin da indarkeria mota horren eguneroko erregistroa**: 2003an hiru gertaera baino gehixeago izatetik, azken urtean sei biktimizazio baino gehiago izan dira egunero.


Aztertutako hogeitun urteetan, bikotekideak edo bikotekide ohiak emakumeei eragindako biktimizazioak 38.779 izan ziren Bizkaian.

Biktimizazio-tasa 10.000 emakumeko

Biktimizazioen bilakaera ikusteko beste modu bat 10.000 emakumeko tasa da.

2022an, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren tasa **39,6 biktimizaziokoa da 10.000 emakumeko**. Aldiaren hasierarekin alderatuz gero, tasa hori **14 puntu baino gehiago igo da 2005etik**.

Adierazlearen bilakaeraren ikuspegitik, hazkundearen erritmoa lehen urteetan azkarragoa dela ikusten da.



Oharra: Tasa 10.000 emakumeko, biktimizazio-kopuruaren eta urteko emakumezko biztanleen arabera kalkulatuta.
 Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Segurtasun Saila.

Delitu-motak


Ertzaintzak egindako gertakarien kalifikazioen arabera, bikotekideek edo bikotekide ohiek eragindako biktimizazio gehienak delitu-mota hauen barruan daude, beste ekitaldietan gertatu den antzera:

- Tortura eta integritatearen aurkakoak: 1.072 biktimizazio (guztizkoaren % 45,6); gehienbat **familia-eremuko ohiko tratu txarren kategorian (1.056 biktimizazio)**.
- Lesioak: 560 biktimizazio (guztizkoaren % 23,8)
- Justizia Administrazioaren aurka: 504 biktimizazio (guztizkoaren % 21,4). Barne dira **segurtasun-neurri, kautela-neurri, kondena eta abarren urratzeak**.

Jazarpen -delituak, Zigor Kodean 2015ean⁴ jaso eta askatasunaren aurkako delituetan sartuta dagoenak, 36 biktimizazio jaso zituen 2022an.

Mota horretako gertakarien identifikazioak **hazkunde** nabarmena erakusten du, delitu-tipologia berri gisa sartu zirenetik lau urte igaro ondoren, eta hurrengoetan jaisten da. 2022an berriro gora egin du eta orain arteko gorena markatu du.

2.7 grafikoa. Bikote/bikote ohiek eragindako indarkeria.
Sexu-jazarpenen biktimizazioak. BLH. 2015-2022



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Segurtasun Saila.

⁴ Martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoaren bidez Zigor Kodean sartua.

Lesioen larritasuna

2022an, bikotekidearen indarkeriaren ondorioz hildako bat erregistratu zen Bilbon.

2004tik hona, 25 emakume hil ditu Bizkaian bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriak. Aztertutako aldian, hiru urtetan soilik ez da hildakorik izan.



Iturria: Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta egin da. Eusko Jaurlaritza.

Horrez gain, urtean bederatzi kasutan erregistratu zen biktima **larri zauritua izan zela**.

Biktimizazioen banaketak, lesioaren larritasunaren arabera, antzeko emaitzak ditu urtetik urtera.

2.3 taula. Bikotekide/bikotekide ohiak eragindako emakume-biktimizazioak, lesioaren larritasunaren arabera. BLH. 2004/2022


LESIOAREN LARRITASUNA	2004 Kop. (%)	2008 Kop. (%)	2012 Kop. (%)	2016 Kop. (%)	2020 Kop. (%)	2022 Kop. (%)
Hilda	4 (0,3)	1 (0,1)	0 (-)	1 (0,1)	1 (0,05)	1 (0,04)
Larriki zauritua	4 (0,3)	12 (0,6)	9 (0,4)	6 (0,3)	12 (0,6)	9 (0,4)
Arinki zauritua	429 (33,0)	566 (29,0)	574 (27,2)	512 (26,2)	515 (24,1)	554 (23,6)
Kalterik gabe	769 (59,2)	1.261 (64,6)	1.383 (65,5)	1.308 (67,0)	1.279 (59,9)	1.360 (57,8)
<i>Ez dakigu</i>	<i>93 (7,2)</i>	<i>112 (5,7)</i>	<i>144 (6,8)</i>	<i>126 (6,5)</i>	<i>328 (15,4)</i>	<i>428 (18,2)</i>
GUZTIRA	1.299 (100,0)	1.952 (100,0)	2.110 (100,0)	1.953 (100,0)	2.135 (100,0)	2.352 (100,0)

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Segurtasun Saila.

Harremana erasotzailearekin

Erregistratutako kasuen erdietan baino gehiagotan (% 52), erasotzailea **dagoeneko ez da biktimaren bikotekidea**.

Hala, aurreko urteetako joerari jarraitu zaio; izan ere, aldi horretan, ia urtero, banantzeen testuinguruan gertatzen diren biktimizazioen ehunekoa % 50etik gorakoa da (grafikoan kolore berdeko tarteekin irudikatu da).



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Segurtasun Saila.

Adina

Bikotearen/bikotekide ohiaren indarkeriaren zifretan izandako gorakada **orokorra da adinaren ikuspegitik**, izan ere, 14 urtetik beherako tartean izan ezik, adin-tarte guztietan ikusten da hazkundera, aurreko urtearekin alderatuta.

Ohiko ereduaren ildotik, 2022an ere adin-tarte guztietako biktimak erregistratzen dira, eta bi heren inguru **(% 62) 40 urtetik beherakoak dira**:


- Adin horietako emakumeen kopurua **milatik gorakoa da (1.096)**.
- Aurreko urteetan bezala, 31 eta 40 urte bitarteko adin-tartea da ugariena (biktimen % 30,5). Aurten, aurreko eta ondorengo adin-tarteek kasu bakoitzeko laurdena biltzen dute (21-30 urte bitartekoen % 24,5 eta 41-50 bitartekoen % 25,5).
- **37 adingabe** izan dira (32, berriz, 2021ean): 14 eta 17 urte bitarteko 36 nerabe, eta 14 urtetik beherako adingabe bat.

Aurreko urteetan bezala, 2022an, **21 eta 30 urte bitartean agertzen da tasa gorena**, hots, 80 kasu baino gehiago 10.000 emakumeko. Aurten ere antzeko balioa du 31 eta 40 urte bitarteko tartea (kasu honetan, bederatzi puntu baino gehiagoko aldea duela 2021eko balioarekiko).

Tasa espezifiko adinaren arabera

Adin-tarte bakoitzeko biktima-kopuruaren eta adin horietako biztanle-bolumenaren arteko erlazioak agerian uzten du Ertzaintzak erregistratutako kasuak 18 urtetik aurrera ugaritzen hasten direla, eta 40 urtetik aurrera gutxitzen direla.

2.10. grafikoa. Bikote/ bikote ohiaren indarkeriaren biktima diren emakumeak (10.000 emakumeko tasa). BLH. 2021-2022



Oharra: Tasa 10.000 emakumeko, biktimizazio-kopuruaren eta adin horietako biztanleen arabera kalkulatuta. Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Segurtasun Saila (poliziaren datuak) eta EIN (biztanleriari buruzko datuak).

Lehen aipatu dugun moduan, datuek ez dute islatzen indarkeria-mota hau jasan duten emakumeen profil orokorra, baizik eta, *kontuan hartutako aldian, erakundearen laguntza jaso duten emakumeena* (kasu honetan, Ertzaintzaren polizia-zerbitzuena), babes- eta laguntza-neurriak aktibatu direlako, biktimaren beraren ekimenez izan nahiz ez izan. Edonola ere, zifrek


urtez urte agerian uzten dute **adina desberdintasun-faktore bat dela, zerbitzu horien erabilerari begira.**

Jaioterria

Bikotekideak/bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren biktimen % 54,9 EAEn eta beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako emakumeak ziren, guztira 971 emakume. % 45,1 atzerrian jaiotakoak ziren (799 emakume).

Aurreko urtearen aldean, bi talde horiek handitu egin dira, indar desberdinarekin bada ere; % 5,5 lehen taldea eta % 20,9 bigarrena.

Aldi osoa kontuan hartuta, murriztuz joan da bi taldeek erakusten dituzten proportzioen arteko distantzia.



(*) 2004ko datuak biktimizazioei dagozkie, urte horretarako ez baitago biktimen daturik. (*) 2013ko eta 2022ko datuak biktimei dagozkie.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Segurtasun Saila.

Atzerriko jatorria duten emakumeen datuak xehatuta, ohikoa den bezala, gehienak Latinoamerikakoak dira (% 76). Horien ondoren, Afrikako eta Europako emakumeak daude (% 13 eta % 10, hurrenez hurren); gainerakoak Asiakoak dira (% 1,5).


B. Erasotzaileak⁵

2022an, bikotekidea edo bikotekide ohia indarkeriaz eraso dute 1.771 gizonak, % 12 gehiago 2021ean baino (1.575 eraso izan ziren orduan).

Ohikoa denez, erdiko adin-tarteetan biltzen dira erasotzaile gehienak: 31 eta 50 urte bitartean, % 59 (1.045 gizon). Biktimen kasuan bezala, 31 eta 40 urte bitarteko adin-tartea da nagusi (% 32,3).

2022an adingabeko 21 erasotzaile daude, hau da, aurreko urtean **halako bi ia** (11 adingabe 2021ean); horietako bi 14 urtetik beherakoak ziren, eta 14 eta 17 urte bitarteko 19 gazte.

Grafikoan ikus daitekeenez, biktimekin gertatzen den bezala, erasotzaileen kopurua ere handitu egiten da urtez urte, adin-tarte guztietan. 18-20 urteko tartean izan ezik, adin-tarte guztietan kopuruak handitu egiten dira. Adin-tarteen bi muturretan ikusten dira aldaketarik handienak: adingabeen kasuan igoera % 91ekoa da, eta 65 urtetik gorako tartean % 72ra iristen da.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Segurtasun Saila.

⁵ Emakumeen aurkako indarkeriazko egintzen egileak gizonak diren kasuak.

2.2.2. Udalerrietako datuak

Udalerrietako biktimizazioen datuak baloratzeko orduan, txosten honen aurreko edizioetan eta oraingo honen hainbat ataletan adierazi den bezala, kontuan hartu behar da datu horiek —zerbitzu publikoen erregistroetatik hartuak— ez dutela adierazten fenomenoak udalerrietan duen intentsitatea, baizik eta, **zerbitzuak erantzun bat emateko duen gaitasuna, biztanleek baliabideaz egiten duten erabilera eta poliziaren jardura bera.**

Datu horien irakurketan hainbat alderdi hartu behar dira kontuan, besteak beste: baliabidearen **eskuragarritasuna** herritarrek —biktimak, inguruko pertsonak etab.— **zerbitzu publikoa erabiltzeko** duten joera (faktore hori lotzen da baliabideren berri izatearekin, herritarrek sumatzen duten hurbiltasunarekin, zerbitzuarekiko konfiantzarekin eta beste hainbatekin), edo polizien **ofiziozko jarduketa**. Faktore horiei esker errazago azaldu daiteke biktimizazioen kopurua eta horrelakoak gertatzeko arriskua gunen batean edo bestean zergatik den handiagoa edo txikiagoa. Tasek eskaintako informazioa osatzeko, interesgarria izango litzateke jakitea, besteak beste, biktimizazioen zer proportzio sortzen diren polizia-jarduketatik, biktimaren zuzeneko ekimenetik, hurbileko pertsonen ekimenetik, etab.


A. 25.000 biztanletik gorako udalerriak

Bizkaiko hamar udalerrri handienek biztanleriaren % 67,7 hartzen dute. Biztanleria-bolumen horren parean, 2022an bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren ondorioz Lurraldean izandako biktimizazioen % 69,7 erregistratu ziren; guztira **1.640 gertaera**.

Ohikoa denez, parekatze hori gutxitu egiten da udalerrriaren errealitatera ekartzean; izan ere, biktimizazioen banaketa ez dator bat kasu guztietan biztanleriaren bolumenarekin, lehen azaldutako arrazoiengatik.

Erregistro horietako datuak tasa bidez (10.000 emakumeko) adierazita, argi ikusten dira udalerrien arteko aldeak; ez da multzo homogeenoa, eta, batzuetan, udalerrri batzuetako tasak beste batzuetakoak halako bi eta gehiago ere izaten dira.

2.13 grafikoa. Emakumeen biktimizazio-tasa, bikotekideak/bikotekide ohiak eragindako indarkeria dela eta. Udalerrriak > 25.000 biztanle. BLH. 2022



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Segurtasun Saila.

2.4 taula. Bikotekidearen/bikotekide ohiaren indarkeriaren ondoriozko emakume-biktimizazioei buruzko adierazle nagusiak, 25.000 biztanletik gorako udalerrietan. BLH. 2022


Udalerrria	Emakumeen kop.	BLHko guztizkoaren %	Biktimizazioen kop.	BLHko guztizkoaren %	Biktimizazioen kop.
Barakaldo	51.949	8,7	244	10,4	47,0
Basauri	20.819	3,5	66	2,8	31,7
Bilbao	181.299	30,5	663	28,2	36,6
Durango	15.188	2,6	60	2,6	39,5
Galdakao	14.901	2,5	42	1,8	28,2
Getxo	40.589	6,8	149	6,3	36,7
Leioa	16.433	2,8	71	3,0	43,2
Portugalete	23.387	3,9	100	4,3	42,8
Santurtzi	23.806	4,0	142	6,0	59,6
Sestao	14.214	2,4	103	4,4	72,5
Guztira	402.585	67,7	1.640	69,7	40,7
Guztira, BLH	594.303	-	2.352*	-	39,6

(*) 2022n bikotekide/bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren ondoriozko 5 biktimizazio udalerrri esleitu gabe geratu ziren (2021ean 10 izan ziren).

Oharra: Biktimizazio-tasa 10.000 emakumeri dagokion tasa da.

Iturria: Geuk egina, EInen eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta.

Jarraian datorren grafikoan ikus daitezke 10.000 emakumeko biktimizazio-kopurua eta zenbateko horretatik eratorritako tasa. Agerian geratzen den banaketa desorekatu horri dagokionez, aintzat hartu behar da atal honen hasieran adierazitako faktoreen konbinazioak duen eragina.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Segurtasun Saila.











Aurreko urtearekin alderatuta, hamar udalerri horien multzoko erregistroa **% 15 handitu zen** (1.431 biktimizazio 2021ean).

Datu horien zehaztasunak aztertuta, urte arteko erregistroak erkatzeko orduan, aurreko urteetan bezala, ezin da esan talde horretako udalerrietan joera orokor bat dagoenik, ezaugarri nagusietako bat, hain zuzen, joera-aniztasuna baita. Hala ere, 2022an, talde horretako udalerri gehienek, banaka hartuta ere, aurreko urtean baino zifra handiagoak agertzen dituzte. Baina aldaketak ez dira parekoak, eta oraingo honetan, nabarmenena Getxori dagokio, % 75,3 hazi baita (64 biktimizazio gehiago).

Hurrengo grafikoak udalerri horietako bakoitzeko biktimizazio-tasan azken 17 urteetan izan den bilakaera erakusten du:

- Tasen aldaketari dagokionez, Bilbok eta Getxok joera nahiko erregularra erakusten dute epealdi osoan zehar, aldaketa gutxi batzuekin, urteko adierazleetan (Getxoren kasuan, egoera aldatzen da 2022ko datuekin). Gainerako udalerriek mugimendu irregularrak izan dituzte aztertutako epealdian zehar.
- Norabideari dagokionez, tasa nahiko egonkor mantendu zen Barakaldon eta Getxon; Basaurin zertxobait behera egin zuen, eta gainerakoetan goranzko joera izan zuen, intentsitate desberdinarekin izan bazen ere: azken urteetan, Leioa, Santurtzi eta Sestao, agertzen dira kurba ikusgarrienarekin.

2.15. grafikoa. Bikotekide/bikotekide ohiaren indarkeriaren ondoriozko emakume-biktimizazioen tasa. 25.000 biztanletik gorako udalerriak. BLH. 2006-2022



B. Mankomunitateak


Bizkaian, udalerrien bederatzi udal-multzo daude, gizarte-zerbitzuak emateko – eskusibotasunez ala ez–. Mankomunitate horietako udalerri gehienak 2.000 biztanletik beherako herriguneak dira eta, guztien artean, Bizkaian bizi diren emakumeen % 21 hartzen dute.

2022an, mankomunitate horiek, guztira, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren ondoriozko **406 emakume-biktimizazio** erregistratu zituzten, hau da, Bizkaiko guztien % 17,3.

Biktimizazioen bolumen horrek 10.000 emakumeko 32,0 biktimizazio-tasa bateratua islatzen du, zazpi puntu pasa Lurralde osokoaren azpitik (39,6).

Urte honetan, **mankomunitate guztiek, banaka hartuta, Bizkaia osoak baino tasa txikiagoak erakusten dituzte**, Txorierri izan ezik, hark berdintzen duelako batez besteko tasa, Mungialdetik eta Lea Ibaratik –taldeko tasa baxuenak– urrundurik, 11 puntu pasa.

Txorierriko Mankomunitatean, Derioko eta Zamudioko udalerrietan berdintasunez banatzen dira gertakarien bi heren baino gehiago (% 67,4).



Oharra: Biktimizazio-tasa 10.000 emakumeri dagokion tasa da.

Iturria: Geuk egina, EInen eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta.

2.5. taula. Bikotekidearen/bikotekide ohiaren indarkeriaren ondoriozko emakume-biktimizazioari buruzko adierazle nagusiak mankomunitateetan. BLH. 2022

Mankomunitatea	Emakumeen kop.	BLHko guztizkoaren %	Biktimizazioen kop,	BLHko guztizkoaren %	Biktimizazioen kop,
Arratia	7.148	1,2	25	1,1	35,0
Busturialdea	14.937	2,5	45	1,9	30,1
Enkarterri	17.772	3,0	64	2,7	36,0
Lea-Artibai	11.726	2,0	35	1,5	29,8
Lea Ibarra	1.041	0,2	3	0,1	28,8
Durangoko M.	30.228	5,1	93	4,0	30,8
Mungialde	12.434	2,1	35	1,5	28,1
Txorierri	10.941	1,8	43	1,8	39,3
Uribe Kosta	20.467	3,4	63	2,7	30,8
Guztira	126.694	21,3	406	17,3	32,0
Guztira, BLH	594.303	-	2.352*	-	39,6


(*) 2022an, bikotekide/bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren ondoriozko 5 biktimizazioari ez zitzaizkion udalerririk esleitu (2021ean 10 izan ziren).

Oharra: Biktimizazio-tasa 10.000 emakumeri dagokion tasa da.

Iturria: Geuk egina, EInen eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta.

Aurreko urtearekin alderatuta, mankomunitate guztien biktimizazioen bolumena **% 11 igo zen** (406 gertakari izan ziren, 2021ko 365en aldean). Igoera hori mankomunitate gehienetan gertatzen diren igoeren ondorio da, Uribe Kostak bakarrik egiten baitu behera (-% 15).

Ikuspegia zabaltzen badugu 2005etik orain arteko epe osora, ondoko grafiko honek erakusten du erakunde horietako biktimizazio-tasaren eboluzioa: **beti mantendu izan da Lurralde osoko tasaren azpitik.**



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Segurtasun Saila.

Oro har, mankomunitateetako biktimizazioen erregistroa txikiagoa izateak lotura izan dezake mankomunitateak osatzen dituzten udalerri asko txikiak izatearekin; izan ere, txikitasunak inhibizioa eragin dezake egoera horiek publiko egiteko orduan, komunitatearen anonimotasun maila txikiagoa baita –faktore eragozlea da, bai biktimen kasuan, bai hurbileko pertsonen kasuan–. Gainera, lotuta egon daiteke udalerri horietako biztanleria, oro har, zaharragoa izatearekin, izan ere, gogoratu behar da Bizkaian erregistratutako biktimizazioen adinaren kurbak pertsona gazteenen presentzia nabarmena erakusten duela.


Adierazle hori mankomunitate bakoitzean aztertuta, agerian jartzen du desberdintasunak daudela batetik bestera (hurrengo grafikoa):

- Tasen gorabehera dagokionez, Lea-Artibaik izan zuen portaerarik erregularrena aldi osoan zehar, gorabehera gutxirekin; gainerako mankomunitateek gorabeheren irregulartasun handiagoa erakutsi dute.
- Norabideari dagokionez, 2021era arte Txorierriko Mankomunitatea zen beheranzko joera zuen bakarra. Urte horretako igoerak leundu zuen beheranzko joera, 2022ko datuek ere horixe berresten dute eta, grafikoan ikus daitekeenez, aldatu egiten da joera, eta gaur egun egonkorra ikusten da, Mungialdean bezala. Gainerako entitateek, oro har, biktimizazioen erregistroan goranzko joera erakusten dute.




2.18 grafikoa. Bikotekide/ bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren ondoriozko emakumeen biktimizazio tasa udalerrien mankomunitateetan. BLH. 2005-2022


ARRATIA




BUSTURIALDEA




ENKARTERRI




LEA-ARTIBAI




LEA IBARRA




DURANGOKO MERINALDEA




MUNGIALDE



TXORIERRI



URIBE KOSTA



C. Beste udalerri batzuk

Urtero, aurreko bi sailkapenetatik kanpo geratzen diren Bizkaiko beste udalerri batzuek — alegia, 25.000 biztanletik beherako herriak eta mankomunitatetako partaide ez direnak— emaitza aipagarriak erregistratu dituzte. Talde horretakoa da **Erandio**, Lurraldekoak baino tasa altuagoak erakusten baititu modu jarraituan: 2022an 83 biktimizazio erregistratu ziren, bikotekide/bikotekide ohiaren indarkeriagatik, eta **65,9**ko tasa bat, udalerriko 10.000 emakumeko.

2.3. FAMILIA BARRUKO INDARKERIA


Segurtasun Sailak emandako datuekin bat, epigrafe honetan gizonetako emakumeen aurka familia-ingurunean eragindako indarkeria soilik hartzen da kontuan, bikotekide/bikotekide ohiak eragindakoa alde batera utzita.

2.3.1. Lurraldeko datuak

A. Biktimizazioak eta biktimak

Urtean zehar, Ertzaintzak emakumeen **568 biktimizazio** erregistratu zituen Bizkaian, familia barruko indarkeriaren ondorioz. Biktimizazio horiek 483 biktimari dagozkie, eta sortzen duten tasa **9,6 biktimizaziokoa da, hamar mila emakumeko**.

Biktimizazioen bolumena iazkoaren antzekoa da (-% 0,4), eta, oro har, epealdi osoan erregistratutako zifren antzekoa. Izan ere, datuen bilakaeran agertzen den gorabehera nabarmen bakarra 2020an pandemiaren eta horri aurre egiteko aplikatutako neurrien salbuespenak markatu zuen (beste arreta-zerbitzu batzuetan ere familia barruko indarkeria-kasu gehiago jaso ziren).




*Oharra: 2009tik (barne), datuetan soilik jasotzen dira *erasotzailea gizonetako den* biktimizazio-kasuak. Aurreko urteetako datuek biktimizazio guztiak jaso zituzten, erasotzailearen sexua alde batera utzita, eta, beraz, erasotzailea emakumea deneko kasuak ere hartzen dira kontuan. Grafikoan haustura hori lerro etenarekin eta kolore aldaketarekin adierazten da. Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Segurtasun Saila.

Erasotzailearekiko harremana

Biktimaren eta erasotzailearen arteko harremanaren arabera, familia barruko indarkeriazko gertakari erregistratuak hiru taldetan banatzen dira:

- Adingabeko alaba
- Ama
- Gainerako familiarrak

Normalean gertatzen den bezala, 2022an ere gertakari gehienetan biktima erasotzailearen ama (% 43,3) edo familiarra (% 40,3) da. Gainerako % 16,4an, biktima erasotzailearen alaba adingabe bat da.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Segurtasun Saila.

Hiru taldeetatik, aurreko urtearekin alderatuta, gutxiago izan dira, soilik, biktima erasotzailearen adingabeko alaba deneko kasuak.

2.6 taula. Familia barruko indarkeriaren ondoriozko emakume-biktimizazioak, erasotzailearekiko harremanaren arabera. BLH. 2021-2022

	2021	2022	% aldakuntza
Alaba adingabea	113	93	-17,7
Ama	233	246	5,6
Gainerako familiartekoak	224	229	2,2
Guztira	570	568	-0,4

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Segurtasun Saila.

Adina


Indarkeria-mota horretan ere izaten dira adin-tarte guztietako biktimak. Aurreko urteetan bezalatsu, familia barruko indarkeriarekin lotutako gertakariak, gehienetan, maizago gertatzen zaizkie adingabeei eta 50 urtetik gorako emakumeei:

- Biktimen % 25,1 **adingabeak** dira, 121 neskato eta nerabe guztira (14 urtetik beherako 79 adingabe eta 14 eta 17 urte bitarteko 42).

Gehienetan aita da erasotzailea (**% 77**).

- % 39k 51 urte edo gehiago ditu: 189 emakume. **Adin-tarterik ugariena 51-64 urte artekoa da, eta indarkeria-mota horretako biktima guztien % 23,2 biltzen ditu.**

Aurreko atalean aurreratu den bezala, kasuen jaitsiera adingabeen taldean ikusten da, 14 urtetik beherakoen artean, zehazki. Gainerako tarteek aurreko urteko bolumena mantendu edo handitzen dute, 18 eta 20 urte bitarteko azpitaldeak izan ezik, kasu batzuk gutxiago erregistratzen baititu.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Segurtasun Saila.

Jaioterria

Familia barruko indarkeriaren biktima diren hamar biktimatik zortzi eta bederatzi bitartean EAEn eta beste autonomia-erkidego batzuetan jaioak dira. 2022an 398 emakume izan ziren (% 82,4).


Atzerriko herrialdeetan jaiotako emakumeen kopurua aurreko urtekoa bera da: 85 emakume, guztizkoaren % 17,6. Gehienak Latinoamerikako herrialdeetakoak dira (% 66); % 16 Europakoak, % 13 Afrikakoak eta gainerako Asiakoak.

B. Erasotzaileak⁶

Ertzaintzaren erregistroen arabera, 2022an familia barruko indarkeriaren erasotzaileak **454** dira, aurreko urteko kopuru bertsua (2021ean 452).

Adinari erreparatuta, maiztasun handienak erdiko adinetan gertatu ziren, **41 eta 50 urte bitartekoetan eta 31 eta 40 urte bitartekoetan** (% 26 eta % 20, hurrenez hurren).

Aurreko urtearekin alderatuta, alderik handienak muturreko adin-tarteetan ageri dira.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Segurtasun Saila.

⁶ Emakumeen aurkako indarkeria-gertakarien egileak gizonak diren kasuak jasotzen ditu.

2.3.2. Udalerrietako datuak


2022an, Ertzaintzak Bizkaiko 62 udalerritan erregistratu zituen familia barruko indarkeriarekin lotutako gertakariak (2020an, 55 udalerrri ziren).

Biktimizazioen % 62 (350 kasu guztira) 25.000 biztanletik gorako hamar udalerrietan kokatzen dira. Oro har, indarkeria-mota horretarako, biktimizazioen portzentajezko banaketa nahiko proportzionatua da biztanleriarekiko, nahiz eta hainbatetan indize atipikoak erregistratu ziren.

2.7 taula. Familia barruko indarkeriaren ondoriozko emakume-biktimizazioen adierazle nagusiak 25.000 biztanletik gorako udalerrietan. BLH. 2022

Udalerrria	Emakumeen kop.	BLHko guztizkoaren %	Biktimizazioen kop.	BLHko guztizkoaren %	Biktimizazioen kop.
Barakaldo	51.949	8,7	58	10,2	11,2
Basauri	20.819	3,5	18	3,2	8,6
Bilbao	181.299	30,5	132	23,2	7,3
Durango	15.188	2,6	11	1,9	7,2
Galdakao	14.901	2,5	9	1,6	6,0
Getxo	40.589	6,8	28	4,9	6,9
Leioa	16.433	2,8	8	1,4	4,9
Portugalete	23.387	3,9	30	5,3	12,8
Santurtzi	23.806	4,0	27	4,8	11,3
Sestao	14.214	2,4	29	5,1	20,4
Guztira	402.585	67,7	350	61,6	8,7
Guztira, BLH	594.303	-	568	-	9,6

Oharra: Biktimizazio-tasa 10.000 emakumeri dagokion tasa da. Iturria: Geuk egina, EInen eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Segurtasun Saila.

2.4. EMAKUMEEN AURKAKO SEXU-INDARKERIA

Sexu-askatasunaren aurkako delituak dira Zigor Kodean ageri direnak: sexu-erasoa, sexu-abusua, sexu-jazarpena, exhibizionismoa, sexu-probokazioa, adingabeen korrupzioa, prostituzio behartua eta adingabeen pornografia.

Atal honetan aurkezten diren datuetan emakumeen aurka beren familia-eremukoak ez diren gizonak eragindako sexu-indarkeriako kasuak soilik jasotzen dira; bikotekide/bikotekide ohiaren edo beste familiarteko baten sexu-delituengatik biktimizazioak, berriz, horiei egotzitako guztizkoan jasotzen dira (kapitulu honetako aurreko atalak).


2.4.1. Lurraldeko datuak

A. Biktimizazioak eta biktimak

2022an, Ertzaintzak sexu-askatasunaren aurkako delituen ondoriozko **274 emakume-biktimizazio** erregistratu ditu Bizkaian (271 biktima), aurreko urtean baino % 22 gehiago.

Biktimizazio-zifra horri tasa hau dagokio: **4,6 biktimizazio** hamar mila emakumeko.

2022ko datuak adierazten du orain arte indarkeria-mota horretan erregistratu den **kopuru gorena** Azken bosturtekoaren ezaugarria izan da urtez urteko igoerak, salbuespen bakarra 2020koa dela.




Oharra: 2009tik (barne), datuak *erasotzailea biktimaren familia-eremukoak ez den* biktimizazio-kasuei buruzkoak baino ez dira. Aurreko urteetako datuek sexu-askatasunaren aurkako delitu guztiak jasotzen dituzte, biktimaren eta erasotzailearen arteko harremana edozein dela ere, eta beraz, bikotekide/bikotekide ohiaren eta beste familiarteko batzuen sexu-erasoak hartzen dira kontuan. Grafikoa haustura hori lerro etenarekin eta kolore aldatetarekin adierazten da.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Segurtasun Saila.

Delitu-motak

Ertzaintzak gertakarien gainean eginiko kalifikazioaren arabera, sexu-askatasunaren aurkako delituen ondoriozko biktimizazio gehienak **sexu-abusuen**⁷ (% 50) eta **sexu-erasoen** (% 45) kategorietan sartzen dira. Biek halako delitueta poliziak egindako esku-hartzeen % 95 biltzen dituzte.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Segurtasun Saila.


Adina

Ertzaintzak erregistratutako sexu-askatasunaren aurkako delituen biktima diren emakume gehienak adin-tarte oso gazte batean daude, eta kopuru horrek behera egiten du, adinean gora egin ahala.

Mota horretako delituen bat jasaten duten emakumeen erdiak inguru (**% 47,2**) **20 urtetik beherakoak dira**, guztira 128 neska (2021ean 122).

Haietatik, 93 adingabeak dira. Zifra horren arabera, sexu-indarkeriaren biktima diren hamar pertsonatik, **hiru baino gehixeago adingabeak dira**.

⁷ 2022ko urriaren 6az geroztik ez dago sexu-abusuaren deliturik Zigor Kodean, 10/2022 LOren erreformaren arabera.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Segurtasun Saila.

Aurreko urtearekin alderatuta, Bizkaian sexu-indarkeriaren erregistroan izandako gorakada adin-tarte gehienek artean banatu zen, desberdintasunez banatu ere. Bereziki nabarmena da 21-30 adin-tartean (% 72 igo da) eta 31-40 adin-tartean (% 46ko igoera).

Jaioterria

Ertzaintzak indarkeria-mota horren ondorioz artatutako emakumeen % 71,6 EAEn edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaioak ziren (194 emakume), eta % 28,4 atzerrian jaioak (77 emakume), gehienak Latinoamerikan jaioak (% 71).

Jaioterriari dagokionez, 2022an sexu-indarkeriaren erregistroa bi taldeetan handitu zen: % 25 lehen kasuan eta % 13 bigarreanean.

B. Erasotzaileak⁸

2022an, sexu-indarkeriako 238 erasotzaile izan ziren; alegia, aurreko urtean baino % 9 gehiago (2021ean 218).

Ezin da zehaztasunez jakin delitu-mota hori egiten duten erasotzaileen adinaren arabera banaketa; izan ere, kasu askotan (% 21) ez dugu datu hori ezagutzen. Taula honek eskura ditugun datuak biltzen ditu:

2.8 taula. Sexu-askatasunaren aurkako delituak pairatu dituzten emakumeen erasotzaileak, adinaren arabera. BLH. 2022.

	Kop.	%
14 urtetik behera	5	2,1
14-17 urte	10	4,2
18-20 urte	17	7,1
21-30 urte	50	21,0
31-40 urte	43	18,1
41-50 urte	30	12,6
51-64 urte	24	10,1
65 edo gehiago	10	4,2
Ez dakigu*	49	20,6
Guztira	238	100,0

*Datu ezezaguna

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Segurtasun Saila.

⁸ Emakumeen aurkako indarkeria-gertakarien egileak gizonezkoak diren kasuak jasotzen dira.

2.4.2. Udalerrietako datuak


2022an zenbatutako sexu-indarkeriaren ondoriozko emakume-biktimizazioak Bizkaiko 45 udalerritan erregistratu dira (2021ean 36 udalerritan).

Hamarretik zazpi 25.000 biztanletik gorako udalerrietan gertatu ziren. Talde horretan, udalerrri guztiek erregistratu dute gertaeraren bat.

**2.8 taula. Sexu-indarkeriaren ondoriozko emakume-biktimizazioen adierazle nagusiak
25.000 biztanletik gorako udalerrietan. BLH. 2022**

Udalerrria	Emakumeen kop.	BLHko guztizkoaren %	Biktimizazioen kop.	BLHko guztizkoaren %	Biktimizazioen kop.
Barakaldo	51.949	8,7	32	11,7	6,2
Basauri	20.819	3,5	4	1,5	1,9
Bilbao	181.299	30,5	114	41,6	6,3
Durango	15.188	2,6	9	3,3	5,9
Galdakao	14.901	2,5	2	0,7	1,3
Getxo	40.589	6,8	9	3,3	2,2
Leioa	16.433	2,8	7	2,6	4,3
Portugalete	23.387	3,9	8	2,9	3,4
Santurtzi	23.806	4,0	5	1,8	2,1
Sestao	14.214	2,4	9	3,3	6,3
Guztira	402.585	67,7	199	72,6	4,9
Guztira, BLH	594.303	-	274	-	4,6

Oharra: Biktimizazio-tasa 10.000 emakumeko kalkulatzen da. Iturria: Geuk egina, EINen eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Segurtasun Saila.

2.5. BIKTIMIZAZIOEN BANAKETA DENBORAN

2.5.1. Ordua

Ohiko ereduari jarraituz, 2022an Ertzaintzak erregistratutako datuek erakusten dute **bikotekide/bikotekide ohiaren indarkeriaren** orduen banaketa; **egunak aurrera egin ahala areagotzen** da. Maiztasunik txikiena goizaldeko orduetan izaten da, goizeko ordu batetik seietara; tarte horretan erregistratzen da gertakarien % 19. Hurrengo ordu-tartean (goizeko zazpietatik hamabietara) % 20 zenbatu zen; eguneko lehen erpina goizeko 10:00ak inguruan izan zen (101 biktimizazio, % 4,3); **eta intentsitaterik handieneko unea eguerdiko 12:00etan da**: 143 biktimizazio, % 6,1. 13:00etatik 18:00etara % 23,4 gertatu ziren, eta 18:00etan areagotu egin ziren. Ordu horretatik aurrera, egunaren amaierara arte, maila altuan eusten dio, eta eguneko biktimizazioen ia heren bat (% 31) 19:00etatik 23:00etara bitarteko tartean gertatu ziren. Tarte horretako ordu bakoitzean 100 biktimizazio baino gehiago erregistratzen dira.


Hurrengo grafikoan ikusten den bezala, 2022ko datuen portaera ez da aldentzen 2021eko portaeratik. Biktimizazioek egunean zehar izan duten banaketak urte horretan eta aurreko urteetan izandakoaren antzekoa da, eta, beraz, alderdi horretatik, eredu finko samarra dela esan daiteke.

Familia barruko indarkeriari dagokionez ere, goizaldean erregistratu ziren biktimizazio gutxien (biktimizazioen % 8,5 guerdiko ordu batetik goizeko seietara). Ohikoa denez, erregistroa gorantz doa, eta 12:00etan eguneko unerik gorena erregistratzen da (44 biktimizazio, % 7,7). Berririo igotzen da 14:00etan (% 7,2) eta, ondoren, egunaren gainerako orduetan jaitsi egiten da, intentsitate-igoera apalagoko une txikiren batekin.

Familia barruko indarkeriaren ondoriozko biktimizazioek ere banaketa erregularra erakusten dute egunean zehar, urtez urte.

Sexu-askatasunaren aurkako delituekin lotutako biktimizazioek, beste bi indarkeria-moten aldean, maiztasun handiagoa erakusten dute goizaldean. 2022an, gertakarien % 28 goizaldeko ordu batetik seietara bitartean erregistratu zen; hain zuzen, tarte horretan bi erpin erregistratu ziren, bata 04:00etan (% 6,2) eta bestea 06:00etan (% 7,3); azken hori da eguneko une kritikoa. Urteko datuek erakusten dutenez, ordu horretatik aurrera jaitsi egiten da, eta % 5etik behera mantentzen da eguneko gainerako orduetan.

2.28. grafikoa. Emakumeen aurkako indarkeriaren ondoriozko emakume-biktimizazioak indarkeria-motaren eta orduen arabera banatuta (%). BLH. 2021-2022.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Segurtasun Saila.

2.5.2. Asteko egunen arabera


Beste urte batzuen antzera, 2022an ere, **bikotekide/bikotekide ohiaren indarkeriak** eragindako biktimizazioen bolumenik handiena **igandean** erregistratu zen: 468 gertakari; hau da, guztien % 20. Larunbateko eta igandeko datuak batuta, ikusi da biktimizazioen heren bat baino gehiago (% 35,5) asteburuan erregistratu zirela. Ostirala gehituta, portzentajea % 49ra igo da; Ertzaintzak aste osoan ezagutzen dituen gertakarien ia erdia. Gainerako lanegunetan, beste kasuen bolumena nahiko modu proportzionalen banatu zen (% 12 eta % 14 bitartean). Asteko egun guztietan, aurreko urtean baino bolumen handiagoa agertzen da.

Familia barruko indarkeriaren ondoriozko biktimizazioen banaketa homogeneoa da aste osoan, egun nabarmenik gabe. Urte honetan, astearteetan eta ostiraletan izaten da gainerakoetan baino gehixeago (% 16 eta % 15, hurrenez hurren). Ostiraletik igandera bitartean izandako gertakariak % 43 dira.

Sexu-askatasunaren aurkako delituekin lotutako biktimizazioak dira asteko banaketa asimetrikoena dutenak, gainerako bi motekin erkatuta. Nabarmen ugaritu ziren **asteburuetan**: Sexu-indarkeriarekin loturiko biktimizazioen % **49** larunbatean (63 biktimizazio, % 23) eta igandean (egun larriena, 70 biktimizazio, % 26) erregistratu ziren. Ostiraleko datua gehituta, ikusten da hiru egun horietan hamar biktimizaziotik ia sei erregistratu zirela (% 58,8).

Hiru indarkeria-motak batera hartuta, gertaera gehienak larunbatean eta igandean izaten dira, bikotekidearen/bikotekide ohiaren indarkerian eta sexu-indarkerian erregistratzen diren kasuengatik.

2.29. grafikoa. Emakumeen aurkako indarkeriaren ondoriozko emakume-biktimizazioak, indarkeria-motaren eta asteko egunen arabera banatuta (%). BLH. 2021-2022.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Segurtasun Saila.

2.5.3. Hilabeteak

Bikotekide/bikotekide ohiaren indarkeriari dagokionez, 2020aren aurreko urteetan, oro har, hileko banaketa nahiko homogeneoa zen, hileroko urteko kasuen % 7 eta % 9 artean biltzen baitzen.

2020an, profil atipikoa du, pandemiaren eta martxoaren 14tik ekainaren 21era ezarritako konfinamendu-neurrien testuinguruan interpretatu daitekeena; tarte horretan izan ziren erregistrorik baxuenak —hasieran— eta altuenak —bukaeran— hileko serie historikoei erreparatuta.

2021ean egoera aldatu egin zen, baina ez zen berreskuratu aurreko parekotasuna, hileroko banaketa % 6 eta % 11 artean kokatu baitzen. 2022an, datuek proportzionaltasun handiagoa erakusten dute, hileko portzentajeak % 7tik % 10era bitartekoak baitira.


Indarkeria-mota horren gorakada orokorra izan da hamabi hilabeteetan, apirilean eta ekainean bakarrik jaitsi baita bolumena, aurreko urteko datuaren aldean. Era berean, **zazpi hilabetek erakusten dituzte 200 biktimizaziotik gorako kopuruak**; beste urteetan, aldiz, halako datu larriak urteko hilabete batean edo gehienez hirutan agertzen ziren.

Familia barruko indarkeriak, 2022ko lehen hilabeteetan, aurreko urtekoen antzeko gorabeherak erakusten ditu, eta abenduan izandako jaitsiera ere antzekoa da. Indarkeria-mota horretan, hileko banaketa aldakorra da, eta hilabete batetik bestera kasuak bikoiztera ere iritsi daitezke. Aurten, apiriletik uztailean bitartean igoera jarraitua ikusi da, orduan jo baitu urteko zifrarik altuena: 63 biktimizazio (% 11). Ekainean, uztailean eta irailean —oporraldiaren hasieran eta amaieran— urte osoko biktimizazioen herena biltzen da.

Hiru indarkeria-moten artean, **sexu-askatasunaren aurkako delituek** agertzen dute banaketarik gorabeheratsuena. 2022an, hileko portzentajeak % 5 eta % 12 bitartekoak dira. Ekainak eta uztailak biltzen dituzte kasu gehien: 33 (% 12) eta 30 biktimizazio (% 11), hurrenez hurren. Indarkeria-mota horrek 2022an izan duen gorakada urte osoan atzematen da, izan ere, urrian eta urtarrilean bakarrik jaso ziren aurreko urtean baino kasu gutxiago.

Emakumeen aurkako indarkeriari oro har erreparatuta, 2022an, **uztaila** izan zen biktimizazio gehieneko hilabetea (304 kasu); izan ere, indarkeria-motaren arabera, uztailean izaten da familia barruko indarkeria gehien, eta bigarren hilabete larriena da, bikotekide/bikotekide ohiaren indarkeriari eta sexu-indarkeriari dagokienez.

2.30. grafikoa. Emakumeen aurkako indarkeriaren ondoriozko emakume-biktimizazioak, indarkeria-motaren eta hilabetearen arabera banatuta (%). BLH. 2021-2022




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Segurtasun Saila.

2.6. BABES-NEURRIAK

2022eko abenduaren 31n, Bizkaian, indarkeriaren **biktima diren 2.417 emakume** daude Ertzaintzaren Etxeko Indarkeria/Genero-indarkeria (EI/GI) espedienteetan; 2021eko datua baino % 9,2 gehiago. Ohiko ildoari jarraiki, haietatik ia bi herenek dute indarrean babes-agindua (% 63,3).

Arrisku-mailari erreparatuta, espediente horietatik % 68,8 oinarrizko arrisku-mailan kokatu dira, laurden bat (% 24,4) arrisku ertainean; % 4,9 arrisku handian; eta % 1,9 aparteko arriskuan. Azken kategoria horretan 47 emakume daude (2021ean 45 emakume).



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Segurtasun Saila.

Arrisku-mailaren arabera, segurtasun-neurri polizialak ezartzen dira. Biktima guztientzat nahitaezkoak ziren neurrietako bat zen Ertzaintzak emakumeari bere babeserako telefono mugikor bat ematea (Bortxa telefonoa); 2019ko urtarrilean Bortxa telefonoa emateari utzi zitzaion eta **Bortxa aplikazioa** banatzen hasi zen, interesa zuten emakumeei, beren telefonoan instalatzeko edo, bestela, aplikazioa bateraezina bazen haien mugikorrekin, aplikazioa instalatua zuen telefono mugikor bat ematen zitzaien. 2022ko abenduaren 31n, 178 emakumek zuten Bortxa aplikazioa erabiltzeko aukera, bi bide horietako batetik (189 emakume ziren 2021eko data berean).

Horrez gain, erreferentziazko datan honako segurtasun-neurriak zeuden aktibatuta:

- Bizkaian, 40 emakumek zuten babesteko zaintza iraunkorra, eskolta esleitu baitzitzaien (2021eko data berean 48 emakume ziren).
- 37 erasotzailek eta biktimek dute eskumutur lokalizatzaile bat (2021eko data berean 38 ziren).

2.7. ESKATUTAKO BABES-AGINDUAK

2022an, **904 babes-agindu** eskatu dira Bizkaian, Ertzaintzaren bidez, **aurreko urtean baino ehun gehiago** (804 eskaera 2021ean).

Indarkeria-motaren araberako banaketa hauxe da:

- Agindu gehienak bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria-egoerekin lotuta eskatu ziren (% 88,8).

Guztira **803** dira eta bi kategorietan modu proportzionalen banatzen dira: % 51,6 bikotekidetik babesteko eskatzen da eta % 49 bikotekide ohitik babesteko. Serie historiko osoko zifrarik altuena da, eta hor dago babes-neurri horren eskaeren gehikuntza (2021ean, 702 agindu eskatu ziren bikotekide/bikotekide ohiaren indarkeriagatik).

- Familia barruko indarkeria dela-eta, Ertzaintzak 93 babes-eskaera jaso ditu, aurreko urteko kopuru bera. Erdiak baino gehiago biktima erasotzailearen ama den kasuak dira (% 55).
- Azkenik, sexu-askatasunaren aurkako delituekin lotuta, babes-agindurako zortzi eskaera jaso ziren (2021ean bederatzi).



ERANSKINAK:

- Datuen taulak.
 - BLHn dauden Emakumeen Aurkako Indarkeriako Biktimizazioen Mapak.
-



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimizazioen gaineko datuak

1. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko biktimizazioak eta biktimak indarkeria motaren eta lurralde eremuaren arabera. 2021-2022.

1. Biktimizazioak eta biktimak

2. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak, arau-hauste motaren eta egilearekiko harremanaren arabera. Bizkaia. 2021-2022.

2. Arau-hauste mota eta egilearekiko harremana

3. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak, indarkeria motaren eta egilearekiko harremanaren arabera. Bizkaia. 2021-2022.

3. Indarkeria mota eta egilearekiko harremana

4. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak kaltegarritasunaren arabera. Bizkaia. 2021-2022.

4. Kaltegarritasuna

5. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko biktimak adinaren arabera. Bizkaia. 2021-2022.

5. Adina

6. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko biktimak jaioterriaren arabera. Bizkaia. 2021-2022.

6. Jaioterria

7. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak hilabetearen arabera. Bizkaia. 2021-2022.

7. Hilabetea

8. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak asteko egunaren arabera. Bizkaia. 2021-2022.

8. Asteko eguna

9. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak orduaren arabera. Bizkaia. 2021-2022.

9. Ordua

10. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak udalerriaren arabera. Bizkaia. 2022.

10. Udalerria

11. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak udalerriaren eta mankomunitatearen arabera. Bizkaia. 2010-2022.

11.1 Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria

11.2 Familia barruko indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa salbu)

11.3 Askatasun sexuala

11.4 Guztira



II. Arloa: POLIZIALA

II.B. Erasotzaileen gaineko datuak

12. taula. Emakumeen kontrako indarkeriaren erasotzaileak adinaren arabera. Bizkaia. 2021-2022.

12. Adina

II.C. Babes-neurrien gaineko datuak

13. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakume biktimek eskatutako babes aginduak, indarkeria motaren eta egilearekiko harremanaren arabera. Bizkaia. 2021-2022.

13. Eskatutako babes aginduak, indarkeria mota eta egilearekiko harremana

14. taula. Biktimen babeserako jarduerak. Bizkaia. 2021-2022.

14. Jarduerak



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimizazioen eta biktimen gaineko datuak

1. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko biktimizazioak eta biktimak indarkeria motaren eta lurralde eremuaren arabera. 2021-2022.

EAE

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA	EAE					
	BIKTIMIZAZIOAK			EMAKUMEAK		
	21	22	Δ	21	22	Δ
BIKOTEKIDEAK / BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDAKO INDARKERIA	3.873	4.507	16,37	2.932	3.407	16,20
FAMILIA BARRUKO INDARKERIA (BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDAKOA SALBU)	1.106	1.116	0,90	940	952	1,28
ASKATASUN SEXUALA	451	520	15,30	445	511	14,83
GUZTIRA	5.430	6.143	13,13	4.317	4.870	12,81

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza

Bizkaian

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA	BIZKAIA					
	BIKTIMIZAZIOAK			EMAKUMEAK		
	21	22	Δ	21	22	Δ
BIKOTEKIDEAK / BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDAKO INDARKERIA	2.114	2.352	11,26	1.581	1.770	11,95
FAMILIA BARRUKO INDARKERIA (BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDAKOA SALBU)	570	568	-0,35	502	483	-3,78
ASKATASUN SEXUALA	224	274	22,32	224	271	20,98
GUZTIRA	2.908	3.194	9,83	2.307	2.524	9,41

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimizazioen gaineko datuak

Atal honen tauletan bildutako sailkapena, Ertzaintzak egindako ekintzen kalifikazioetara dagokio.

2. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak, arau-hauste motaren eta egilearekiko harremanaren arabera. Bizkaia. 2021-2022.

ARAU-HAUSTE MOTA	BIKTIMA ETA EGILEAREN ARTEKO HARREMANA																				
	BIKOTEA			FAMILIA BARRUKOA												ASKATASUN SEX.			GUZTIRA		
	BIKOTE OHIA			Alaba adingabea			Ama			Gainerako ahaideak			GUZTIRA			Beste harreman bat			GUZTIRA		
	21	22	Δ	21	22	Δ	21	22	Δ	21	22	Δ	21	22	Δ	21	22	Δ	21	22	Δ
GUZTIRA	2.114	2.352	11,3	113	93	-17,7	233	246	5,6	224	229	-100,0	570	568	-0,4	224	274	22,3	2.908	3.194	9,8
Hilketa eta bere motak	3	5	66,7	-	-	-	-	2	-	1	-	-100,0	1	2	100,0	-	-	-	4	7	75,0
Hilketa mingarria/eraiketa burutua	1	1	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-	1	2	100,0
Hilketa mingarria/eraiketa saiakera	2	4	100,0	-	-	-	-	1	-	1	-	-100,0	1	1	-	-	-	-	3	5	66,7
Lesioak	433	560	29,3	26	29	11,5	74	83	12,2	66	74	12,1	166	186	12,0	-	-	-	599	746	24,5
Zuhurtziagabekeriako lesioak	1	-	-100,0	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-	1	1	-
Tratu txarrak familia esparruan	363	477	31,4	25	25	-	69	79	14,5	34	47	38,2	128	151	18,0	-	-	-	491	628	27,9
Lesioak	67	81	20,9	1	3	200,0	4	2	-50,0	30	24	-20,0	35	29	-17,1	-	-	-	102	110	7,8
Lesiorik gabeko tratu txarrak	2	2	-	-	-	-	1	2	100,0	2	3	50,0	3	5	66,7	-	-	-	5	7	40,0
Askatasunaren aurkakoak	108	139	28,7	4	10	150,0	20	23	15,0	53	60	13,2	77	93	20,8	-	-	-	185	232	25,4
Mehatxuak	45	52	15,6	4	1	-75,0	13	11	-15,4	39	38	-2,6	56	50	-10,7	-	-	-	101	102	1,0
Hertsapenak	48	51	6,3	-	5	-	6	9	50,0	12	20	66,7	18	34	88,9	-	-	-	66	85	28,8
Behartutako ezkontza	-	-	-	-	2	-	-	-	-	-	-	-	-	2	-	-	-	-	-	2	-
Jazarpena	15	36	140,0	-	2	-	1	3	200,0	2	2	-	3	7	133,3	-	-	-	18	43	138,9
Tortura eta segurtasunaren aurkakoak	1.064	1.072	0,8	60	28	-53,3	105	105	-	60	39	-35,0	225	172	-23,6	-	6	-	1.289	1.250	-3,0
Ohiko tratu txarrak familia-eremuan	1.047	1.056	0,9	59	27	-54,2	105	105	-	60	39	-35,0	224	171	-23,7	-	-	-	1.271	1.227	-3,5
Osotasun moralaren aurkako beste arau-haustek: irainak/umiliazioak	17	16	-5,9	1	1	-	-	-	-	-	-	-	1	1	-	-	6	-	18	23	27,8
Gizaki-salerosketa	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-100,0	1	-	-100,0
Ustiapen sexualerako gizakien salerosketa	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-100,0	1	-	-100,0



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimizazioen gaineko datuak

Atal honen tauletan bildutako sailkapena, Ertzaintzak egindako ekintzen kalifikazioetara dagokio.

2. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak, arau-hauste motaren eta egilearekiko harremanaren arabera. Bizkaia. 2021-2022.

ARAU-HAUSTE MOTA	BIKTIMA ETA EGILEAREN ARTEKO HARREMANA																				
	BIKOTEA			FAMILIA BARRUKOA												ASKATASUN SEX.			GUZTIRA		
	BIKOTE OHIA			Alaba adingabea			Ama			Gainerako ahaideak			GUZTIRA			Beste harreman bat			GUZTIRA		
	21	22	Δ	21	22	Δ	21	22	Δ	21	22	Δ	21	22	Δ	21	22	Δ	21	22	Δ
GUZTIRA	2.114	2.352	11,3	113	93	-17,7	233	246	5,6	224	229	-100,0	570	568	-0,4	224	274	22,3	2.908	3.194	9,8
Intimitatearen aurkakoak, nork bere irudia izateko eskubidearen aurkakoak eta abar.	7	6	-14,3	-	-	-	-	1	-	-	4	-	-	5	-	-	-	-	7	11	57,1
Bizilekuaren bortxapena, etab.	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2	-	-	2	-	-	-	-	-	2	-
Intimitatearen aurkako beste batzuk, nork bere irudia izateko eskubidearen aurkakoak, etab.	7	6	-14,3	-	-	-	-	1	-	-	2	-	-	3	-	-	-	-	7	9	28,6
Sexu-askatasunaren aurkakoak	31	29	-6,5	14	15	7,1	-	-	-	22	21	-4,5	36	36	-	223	268	20,2	290	333	14,8
Sexu-erasoa	6	8	33,3	1	3	200,0	-	-	-	1	2	100,0	2	5	150,0	28	68	142,9	36	81	125,0
Sexu-erasoa penetrazioarekin	16	16	-	1	3	200,0	-	-	-	5	6	20,0	6	9	50,0	43	52	20,9	65	77	18,5
Sexu-gehiegikeria	1	1	-	10	7	-30,0	-	-	-	10	9	-10,0	20	16	-20,0	124	112	-9,7	145	129	-11,0
Sexu-gehiegikeria penetrazioarekin	8	4	-50,0	2	2	-	-	-	-	6	3	-50,0	8	5	-37,5	19	21	10,5	35	30	-14,3
Sexu-jazarpena	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2	2	-	2	2	-
Exhibizionismoa eta probokazio-sexuala	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2	9	350,0	2	9	350,0
Adingabeen galbiderapena	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-	1	-	1	2	100,0	1	3	200,0
Prostituzioa	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2	1	-50,0	2	1	-50,0
Adingabeen pornografia	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2	1	-50,0	2	1	-50,0
Ohorearen aurkakoak	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Kalumniak	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimizazioen gaineko datuak

Atal honen tauletan bildutako sailkapena, Ertzaintzak egindako ekintzen kalifikazioetara dagokio.

2. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak, arau-hauste motaren eta egilearekiko harremanaren arabera. Bizkaia. 2021-2022.

ARAU-HAUSTE MOTA	BIKTIMA ETA EGILEAREN ARTEKO HARREMANA																				
	BIKOTEA			FAMILIA BARRUKOA												ASKATASUN SEX.			GUZTIRA		
	BIKOTE OHIA			Alaba adingabea			Ama			Gainerako ahaideak			GUZTIRA			Beste harreman bat			GUZTIRA		
	21	22	Δ	21	22	Δ	21	22	Δ	21	22	Δ	21	22	Δ	21	22	Δ	21	22	Δ
GUZTIRA	2.114	2.352	11,3	113	93	-17,7	233	246	5,6	224	229	-100,0	570	568	-0,4	224	274	22,3	2.908	3.194	9,8
Familia harremanen aurkakoak	44	36	-18,2	7	7	-	-	-	-	1	2	100,0	8	9	12,5	-	-	-	52	45	-13,5
Zaintza egin beharra ez betetzea	4	4	-	1	-	-100,0	-	-	-	-	-	-	1	-	-100,0	-	-	-	5	4	-20,0
Adingabea bizilekua uztea eragitea/zaintza erregimena hautsi	2	1	-50,0	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2	1	-50,0
Adingabea bahitzea	1	2	100,0	-	-	-	-	-	-	1	-	-100,0	1	-	-100,0	-	-	-	2	2	-
Familia abandonatzea	2	-	-100,0	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2	-	-100,0
Prestazio ekonomikoak ez ordaintzea	35	29	-17,1	4	3	-25,0	-	-	-	-	2	-	4	5	25,0	-	-	-	39	34	-12,8
Adingabea abandonatzea	-	-	-	2	4	100,0	-	-	-	-	-	-	2	4	100,0	-	-	-	2	4	100,0
Justizia administrazioaren aurkakoak	424	504	18,9	2	4	100,0	34	32	-5,9	20	29	45,0	56	65	16,1	-	-	-	480	569	18,5
Segurtasun neurriak, kautela- neurriak, zigorrak eta abar urratzea	424	504	18,9	2	4	100,0	34	32	-5,9	20	29	45,0	56	65	16,1	-	-	-	480	569	18,5
Atzerriko herritarren eskubideen aurka	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-100,0	1	-	-100,0	-	-	-	1	-	-100,0
Legez kanpoko trafikoa/immigrazio klandestinoak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-100,0	1	-	-100,0	-	-	-	1	-	-100,0
GUZTIRA	2.114	2.352	11,3	113	93	-17,7	233	246	5,6	224	229	-100,0	570	568	-0,4	224	274	22,3	2.908	3.194	9,8

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimizazioen gaineko datuak

3. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak, indarkeria motaren eta egilearekiko harremanaren arabera. Bizkaia. 2021-2022.

MOTA / EGILEAREKIKO HARREMANA	URTEA		
	21	22	Δ
BIKOTEKIDEAK / BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDAKO INDARKERIA	2.114	2.352	11,26
Ezkontidea	303	345	13,86
Ezkontide ohia	236	217	-8,05
Neska-laguna / bikotekidea	650	762	17,23
Neska-lagun ohia / bikotekide ohia	869	949	9,21
Emaztegaia	30	31	3,33
Emaztegai ohia	26	48	84,62
FAMILIA BARRUKO INDARKERIA (BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDAKOA SALBU)	570	568	-0,35
Alaba adingabea	113	93	-17,70
Ama	233	246	5,58
Gainerako ahaideak	224	229	2,23
ASKATASUN SEXUALA	224	274	22,32
Bestelako harremana	224	274	22,32
GUZTIRA	2.908	3.194	9,83

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimizazioen gaineko datuak

4. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak kaltegarritasunaren arabera. Bizkaia. 2021-2022.

Bikoteak / bikote ohiak eragindako indarkeria

KALTEGARRITASUNA	URTEA		
	21	22	Δ
Hilda	1	1	-
Zauri larriak	3	9	200,00
Zauri arinak	528	554	4,92
Kalterik gabe	1.223	1.360	11,20
Ezezaguna	359	428	19,22
GUZTIRA	2.114	2.352	11,26

Sestaon 2021/02/12an eta Bilbon 2022/12/28an hildakoak

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza

Familia barruko indarkeria (bikote/ bikote ohiak eragindakoa salbu)

KALTEGARRITASUNA	URTEA		
	21	22	Δ
Hilda	-	1	-
Zauri larriak	-	6	-
Zauri arinak	98	109	11,22
Kalterik gabe	360	349	-3,06
Ezezaguna	112	103	-8,04
GUZTIRA	570	568	-0,35

Barakaldon 2022/04/26an hildakoa

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza

Askatasun sexuala

KALTEGARRITASUNA	URTEA		
	21	22	Δ
Hilda	-	-	-
Zauri larriak	2	1	-50,00
Zauri arinak	21	33	57,14
Kalterik gabe	150	171	14,00
Ezezaguna	51	69	35,29
GUZTIRA	224	274	22,32

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza

Guztira

KALTEGARRITASUNA	URTEA		
	21	22	Δ
Hilda	1	2	100,00
Zauri larriak	5	16	220,00
Zauri arinak	647	696	7,57
Kalterik gabe	1.733	1.880	8,48
Ezezaguna	522	600	14,94
GUZTIRA	2.908	3.194	9,83

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimen gaineko datuak

5. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko biktimak adinaren arabera. Bizkaia. 2021-2022.

Bikote / bikote ohiak eragindako indarkeria

ADINA	EMAKUMEAK		
	21	22	Δ
14 BAINO GUTXIAGO	4	1	-75,00
14 eta 17 BITARTEAN	28	36	28,57
18 eta 20 BITARTEAN	71	85	19,72
21 eta 30 BITARTEAN	426	434	1,88
31 eta 40 BITARTEAN	501	540	7,78
41 eta 50 BITARTEAN	395	451	14,18
51 eta 64 BITARTEAN	125	168	34,40
65 EDO GEHIAGO	31	54	74,19
EZEZAGUNA	-	1	-
GUZTIRA	1.581	1.770	11,95

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza

Familia barruko indarkeria (bikote / bikote ohiak eragindakoa salbu)

ADINA	EMAKUMEAK		
	21	22	Δ
14 BAINO GUTXIAGO	107	79	-26,17
14 eta 17 BITARTEAN	42	42	-
18 eta 20 BITARTEAN	23	16	-30,43
21 eta 30 BITARTEAN	40	40	-
31 eta 40 BITARTEAN	28	31	10,71
41 eta 50 BITARTEAN	81	86	6,17
51 eta 64 BITARTEAN	113	112	-0,88
65 EDO GEHIAGO	67	77	14,93
EZEZAGUNA	1	-	-100,00
GUZTIRA	502	483	-3,78

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimen gaineko datuak

5. taula. Emakumeen kontrako indarkeriatikiko biktimak adinaren arabera. Bizkaia. 2021-2022.

Askatasun sexuala

ADINA	EMAKUMEAK		
	21	22	Δ
14 BAINO GUTXIAGO	38	41	7,89
14 eta 17 BITARTEAN	48	52	8,33
18 eta 20 BITARTEAN	36	35	-2,78
21 eta 30 BITARTEAN	43	74	72,09
31 eta 40 BITARTEAN	24	35	45,83
41 eta 50 BITARTEAN	17	16	-5,88
51 eta 64 BITARTEAN	14	14	-
65 EDO GEHIAGO	4	3	-25,00
EZEZAGUNA	-	1	-
GUZTIRA	224	271	20,98

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza

Guztira

ADINA	EMAKUMEAK		
	21	22	Δ
14 BAINO GUTXIAGO	149	121	-18,79
14 eta 17 BITARTEAN	118	130	10,17
18 eta 20 BITARTEAN	130	136	4,62
21 eta 30 BITARTEAN	509	548	7,66
31 eta 40 BITARTEAN	553	606	9,58
41 eta 50 BITARTEAN	493	553	12,17
51 eta 64 BITARTEAN	252	294	16,67
65 EDO GEHIAGO	102	134	31,37
EZEZAGUNA	1	2	100,00
GUZTIRA	2.307	2.524	9,41

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimen gaineko datuak

Atal honetako taulan bildutako "Jaioterria" aldagaiaren sailkapena, Segurtasun Sailaren irizpideekin bat dator.

6. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko biktimak jaioterriaren arabera. Bizkaia. 2021-2022.

JAIOTERRIA	BIKTIMA ETA EGILEAREN ARTEKO HARREMANA											
	BIKOTE/BIKOTE OHIA			FAMILIA BARRUKOA			ASKATASUN SEXUALA			GUZTIRA		
	21	22	Δ	21	22	Δ	21	22	Δ	21	22	Δ
EAE	791	804	1,6	329	312	-5,2	138	159	15,2	1.258	1.275	1,4
ARABA	8	12	50,0	2	3	50,0	-	2	-	10	17	70,0
BIZKAIA	757	773	2,1	321	303	-5,6	135	154	14,1	1.213	1.230	1,4
GIPUZKOA	26	19	-26,9	6	6	-	3	3	-	35	28	-20,0
BESTE AAEE	129	167	29,5	87	86	-1,1	18	35	94,4	234	288	23,1
EAE + BESTE AAEE	920	971	5,5	416	398	-4,3	156	194	24,4	1.492	1.563	4,8
ATZERRIA	661	799	20,9	85	85	-	68	77	13,2	814	961	18,1
EUROPA	77	76	-1,3	19	14	-26,3	9	12	33,3	105	102	-2,9
EB 27	65	62	-4,6	15	8	-46,7	7	9	28,6	87	79	-9
GAINONTZEKO EUROPA	12	14	16,7	4	6	50,0	2	3	50,0	18	23	27,8
AFRIKA	90	101	12,2	11	11	-	11	6	-45,5	112	118	5,4
MAGREB	68	69	1,5	8	5	-37,5	8	4	-50,0	84	78	-7
GAINONTZEKO AFRIKA	22	32	45,5	3	6	100,0	3	2	-33,3	28	40	42,9
AMERIKA	472	597	26,5	48	56	16,7	46	55	19,6	566	708	25,1
LATINOAMERIKA	472	597	26,5	47	53	12,8	46	55	19,6	565	705	25
AEB ETA KANADA	-	-	-	1	3	200,0	-	-	-	1	3	200,0
ASIA	14	12	-14,3	6,0	2,0	-66,7	1	2	100,0	21	16	-23,8
OZEANIA	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
ATZERRIA ZEHAZTU GABE	8	13	62,5	1	2	100,0	1	2	100,0	10	17	70,0
EZEZAGUNA	-	-	-	1	-	-100,0	-	-	-	1	-	-100,0
GUZTIRA	1.581	1.770	12,0	502	483	-3,8	224	271	21,0	2.307	2.524	9,4

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimizazioen gaineko datuak

7. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak hilabetearen arabera. Bizkaia. 2021-2022.

Bikote / bikote ohiak eragindako indarkeria

HILABETEA	URTEA		
	21	22	Δ
URTARRILA	148	158	6,76
OTSAILA	172	181	5,23
MARTXOA	164	209	27,44
APIRILA	176	156	-11,36
MAIATZA	188	186	-1,06
EKAINA	226	206	-8,85
UZTAILA	145	211	45,52
ABUZTUA	158	210	32,91
IRAILA	179	207	15,64
URRIA	213	224	5,16
AZAROA	185	195	5,41
ABENDUA	160	209	30,63
GUZTIRA	2.114	2.352	11,26

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza

Familia barruko indarkeria (bikote/ bikote ohiak eragindakoa salbu)

HILABETEA	URTEA		
	21	22	Δ
URTARRILA	57	46	-19,30
OTSAILA	35	35	-
MARTXOA	51	49	-3,92
APIRILA	43	39	-9,30
MAIATZA	60	46	-23,33
EKAINA	57	59	3,51
UZTAILA	51	63	23,53
ABUZTUA	39	44	12,82
IRAILA	47	61	29,79
URRIA	43	46	6,98
AZAROA	52	46	-11,54
ABENDUA	35	34	-2,86
GUZTIRA	570	568	-0,35

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimizazioen gaineko datuak

7. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak hilabetearen arabera. Bizkaia. 2021-2022.

Askatasun sexuala

HILABETEA	URTEA		
	21	22	Δ
URTARRILA	16	14	-12,50
OTSAILA	12	22	83,33
MARTXOA	15	24	60,00
APIRILA	15	18	20,00
MAIATZA	11	17	54,55
EKAINA	22	33	50,00
UZTAILA	25	30	20,00
ABUZTUA	17	23	35,29
IRAILA	18	28	55,56
URRIA	38	24	-36,84
AZAROA	19	19	-
ABENDUA	16	22	37,50
GUZTIRA	224	274	22,32

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza

Guztira

HILABETEA	URTEA		
	21	22	Δ
URTARRILA	221	218	-1,36
OTSAILA	219	238	8,68
MARTXOA	230	282	22,61
APIRILA	234	213	-8,97
MAIATZA	259	249	-3,86
EKAINA	305	298	-2,30
UZTAILA	221	304	37,56
ABUZTUA	214	277	29,44
IRAILA	244	296	21,31
URRIA	294	294	-
AZAROA	256	260	1,56
ABENDUA	211	265	25,59
GUZTIRA	2.908	3.194	9,83

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimizazioen gaineko datuak

8. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak asteko egunaren arabera. Bizkaia. 2021-2022.

Bikote / bikote ohiak eragindako indarkeria

ASTEKO EGUNA	URTEA		
	21	22	Δ
ASTELEHENA	301	330	9,63
ASTEARTEA	262	287	9,54
ASTEAZKENA	277	298	7,58
OSTEGUNA	254	296	16,54
OSTIRALA	277	306	10,47
LARUNBATA	343	367	7,00
IGANDEA	400	468	17,00
GUZTIRA	2.114	2.352	11,26

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza

Familia barruko indarkeria (bikote/ bikote ohiak eragindakoa salbu)

ASTEKO EGUNA	URTEA		
	21	22	Δ
ASTELEHENA	76	80	5,26
ASTEARTEA	85	93	9,41
ASTEAZKENA	79	81	2,53
OSTEGUNA	71	72	1,41
OSTIRALA	80	84	5,00
LARUNBATA	93	81	-12,90
IGANDEA	86	77	-10,47
GUZTIRA	570	568	-0,35

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimizazioen gaineko datuak

8. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak asteko egunaren arabera. Bizkaia. 2021-2022.

Askatasun sexuala

ASTEKO EGUNA	URTEA		
	21	22	Δ
ASTELEHENA	27	37	37,04
ASTEARTEA	20	24	20,00
ASTEAZKENA	26	23	-11,54
OSTEGUNA	32	29	-9,38
OSTIRALA	34	28	-17,65
LARUNBATA	53	63	18,87
IGANDEA	32	70	118,75
GUZTIRA	224	274	22,32

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza

Guztira

ASTEKO EGUNA	URTEA		
	21	22	Δ
ASTELEHENA	404	447	10,64
ASTEARTEA	367	404	10,08
ASTEAZKENA	382	402	5,24
OSTEGUNA	357	397	11,20
OSTIRALA	391	418	6,91
LARUNBATA	489	511	4,50
IGANDEA	518	615	18,73
GUZTIRA	2.908	3.194	9,83

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimizazioen gaineko datuak

9. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak orduaren arabera.
Bizkaia. 2021-2022.

ORDUA	EGILEAREKIKO HARREMANA											
	BIKOTEA/BIKOTE OHIA			FAMILIA BARRUKOA			ASKATASUN SEXUALA			GUZTIRA		
	21	22	Δ	21	22	Δ	21	22	Δ	21	22	Δ
00	96	103	7,29	14	10	-28,57	6	6	-	116	119	2,59
01	78	103	32,05	12	19	58,33	8	9	12,50	98	131	33,67
02	61	90	47,54	8	5	-37,50	7	9	28,57	76	104	36,84
03	51	85	66,67	8	5	-37,50	7	13	85,71	66	103	56,06
04	37	70	89,19	6	8	33,33	9	17	88,89	52	95	82,69
05	30	52	73,33	5	4	-20,00	5	8	60,00	40	64	60,00
06	26	52	100,00	7	7	-	9	20	122,22	42	79	88,10
07	31	42	35,48	6	5	-16,67	3	7	133,33	40	54	35,00
08	36	57	58,33	6	15	150,00	7	9	28,57	49	81	65,31
09	63	60	-4,76	14	23	64,29	4	9	125,00	81	92	13,58
10	68	101	48,53	25	26	4,00	5	8	60,00	98	135	37,76
11	81	70	-13,58	29	23	-20,69	8	9	12,50	118	102	-13,56
12	116	143	23,28	35	44	25,71	4	9	125,00	155	196	26,45
13	80	79	-1,25	36	24	-33,33	7	10	42,86	123	113	-8,13
14	80	86	7,50	22	41	86,36	6	3	-50,00	108	130	20,37
15	100	92	-8,00	39	37	-5,13	7	10	42,86	146	139	-4,79
16	93	89	-4,30	33	32	-3,03	12	13	8,33	138	134	-2,90
17	98	92	-6,12	26	25	-3,85	8	11	37,50	132	128	-3,03
18	104	115	10,58	40	34	-15,00	9	8	-11,11	153	157	2,61
19	105	112	6,67	31	20	-35,48	11	14	27,27	147	146	-0,68
20	139	128	-7,91	28	31	10,71	18	10	-44,44	185	169	-8,65
21	124	136	9,68	30	33	10,00	10	7	-30,00	164	176	7,32
22	130	122	-6,15	28	30	7,14	16	13	-18,75	174	165	-5,17
23	127	128	0,79	28	23	-17,86	8	11	37,50	163	162	-0,61
EZEZAGUNA	160	145	-9,38	54	44	-18,52	30	31	3,33	244	220	-9,84
GUZTIRA	2.114	2.352	11,26	570	568	-0,35	224	274	22,32	2.908	3.194	9,83

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza

II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimizazioen gaineko datuak

10. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak udalerriaren arabera. Bizkaia. 2022.

UDALERRIAK (*)	EMAKUME BIZT. 2022	EGILEA ETA BIKTIMAREN ARTEKO HARREMANA				
		BIKOTE/ BIKOTE OHIA	FAMILIA BARRUKO A	ASKATASU N SEXUALA	GUZTIRA	
					BIKTIMIZA- ZIOAK	x10.000 EMAKUME TASA
> 25.000 BIZTANLEKO UDALERRIAK						
BARAKALDO	51.949	244	58	32	334	64,29
BASAURI	20.819	66	18	4	88	42,27
BILBAO	181.299	663	132	114	909	50,14
DURANGO	15.188	60	11	9	80	52,67
GALDAKAO	14.901	42	9	2	53	35,57
GETXO	40.589	149	28	9	186	45,83
LEIOA	16.433	71	8	7	86	52,33
PORTUGALETE	23.387	100	30	8	138	59,01
SANTURTZI	23.806	142	27	5	174	73,09
SESTAO	14.214	103	29	9	141	99,20
< 25.000 BIZTANLEKO UDALERRIAK						
ABADIÑO	3.848	9	12	1	22	57,17
ABANTO Y CIÉRVANA-ABANTO ZIERBENA	4.721	25	3	-	28	59,31
ALONSOTEGI	1.497	4	1	-	5	33,40
AMOREBIETA-ETXANO	9.951	40	13	3	56	56,28
AMOROTO	194	-	1	-	1	51,55
AREATZA	638	2	2	-	4	62,70
ARRANKUDIAGA	510	2	2	-	4	78,43
ARRATZU	228	-	1	-	1	43,86
ARRIGORRIAGA	6.118	22	4	4	30	49,04
ARTEA	372	4	-	1	5	134,41
ARTZENTALES	342	1	-	-	1	29,24
ATXONDO	675	2	-	-	2	29,63
AULESTI	332	-	1	-	1	30,12
BAKIO	1.407	8	1	1	10	71,07
BALMASEDA	3.962	16	1	1	18	45,43
BARRIKA	769	3	3	-	6	78,02
BEDIA	571	-	-	1	1	17,51
BERANGO	3.749	11	3	3	17	45,35
BERMEO	8.518	29	13	1	43	50,48
BERRIATUA	549	1	-	-	1	18,21
